

Haur parkeak helduentzat balira...

Oihane Larretxea
de la Granja

Bizimodu berriak eta beronek ekarri dizkigun debekuek, mugek eta ohitura aldaketek zenbait gabezia utzi dituzte agerian. Zeinengan pentsatuz eraikitzen dira hiriak? Nola planteatzen dira espazio publikoak? Plano gainean nola banatzen dira oinarritzko azpiegiturak eta zerbitzuak? Nago behin kalera ateratzen garenean kondenatuak gaudela kontsumitzera. Adibidez, txiza egin nahi baduzu; beste hainbeste egarri bazara. Non daude komun publikoak?

Non iturriak? Badaude, bakan batzuk, baina fundamentuzkoak balira... gaitz erdi. Itxi ziren tabernak, eta konturatu ginen edo berretsi genituen susmo hauek. *Smart* hiriak, espaloi zabalak, oinezkoentzat guneak, *itzokei*, baina oinarritzko behar hauek sentituz gero, barran ur botilatxo bat eskatzea baino ez dago. Aitzakia 1,20 €.

Espazio publikoaz aske gozatzeko zailtasunok aurretik zeudenei eransten zaizkie. Non eta hemen, Euskal Herrian, herri zein hiri askotan euria egu-

neroko ogia denean. Ez dago non babestu, non goxatu. Estalperik gabeko haur parkeak, baloiarekin jolastea debekatuta dagoela gogorarazten diguten plazak. Ez, arkupeak ez dira nahikoa arratsalde bat, eta beste bat, eta beste bat... igarotzeko. Auzoko haurtxokoa itxita, ez dago alternatibarik. Eta txizagura ez izan arren, taberna baino ez zaigu geratzen. Nago haur parkeak helduentzat balira, aspaldi zuketela estalpea udan eguzkiaz zein neguan euriaz babesteko. Ur botilatxo bat, mesedez. •

Etorkizuneko igarpenak

Koldo Sagasti

Bizitzak buelta asko ematen ditu, eta patua bitxia da oso. Duela urtebete esan baligute orain zertan ari garen eta nola gauden, nekez sinistuko genukeen. Okurritzen zait atzera hilabete batzuk egin nahiko nituzkeela orduko neure niari aholku batzuk emateko. Urtebetez atzerako bidaia egin eta egun bakoitzari azkenena balitz bezala zukua ateratzeko gomendatuko nioke neure buruari, bizitzaz gozatzeko. Esango nioke, zer gerta ere, mendi garaiak igotzeko; bidaia luzeak egiteko; ilargi argitan biluzik bainatzeko; lagunekin geratu, itzelezko parrandak egin eta bizitza jokoan

balego bezala egunsentira arte dantzatzeko; abentura kilikagarriak bizitzeko... eta besarkatzeko, eman gabeko besarkada bat bera ere alferrik pasatzen ez uzteko.

Izan ere, duela urtebeteko neure buruari esan izan banio hilabete batzuk geroago denok gau eta egun mozala jantzita ibili beharko genuela; konfinamendua, etxeratze agindua, eta gisa horretako terminologia belikoa gure seme-alabek egunerokoan naturaltasun osoz erabili beharko zutela; buruan mapatxe baten gorpua zerratela zoro talde batek Washingtongo Kapitolia men-dean hartu behar zuela, eta matxinoen

artean Baskoniako jokalaria ohi bat izango zela; edota sei lagun etxera gonbidatu ez baina azalera handiko saltoki batean sei milarekin elkartu gintezkeela... erotzat hartuko nukeen etorkizuneko bidaiari igarle hori.

Baina duela urtebete bezala, orain ere ezin dugu iragarri patu bihurriak zer ekarriko digun. Nolanahi ere, iragarri ez baina susmatu bai, susma dezakegu gero hurbilak dakarkiguna. Ez nuke giroa gehiago gaiztotu nahi, baina Eusko Jaurlaritzak istiluen aurkako poliziarentzako furgoi blindatuetan lau milioi euro gastatu berri izana ez da etorkizuneko adierazgarri ona. •